

Euskal Aditzari Begira

Adizki jokatuabeak -III-

Aditz-izena

Zer. Zerk. Zeri. Zeren. Zerekin.

Zertan. Zertaz. Zertatik.

Zertara. Zertaraino. Zertarako. Zergatik.

Aditz-izenaren beste erabilera batzuk.

EAB 4

EUSKAL ADITZARI BEGIRA

gure aditza modu erakargarrian aurkezteko beste ahalegin bat da.

Gaurko bitarteko digitalak baliatuz,
euskal aditza pantailara eraman nahi dugu;
eta pantailatik, ikusle-ikaslearen hizkuntz-korpusera.

HELBURU NAGUSIA

HIZKUNTZA ZUZENTASUNEZ ERABILTZEA

«Hizkuntzaren elementu formal eta mekanismoei buruz hausnartzea, haren maila fonologiko, morfosintaktiko, lexiko-semantiko eta testualetan, eta mezuen ekoizpen eta harrera baldintzei buruz, komunikazioko gizarte-testuinguruetan, berezko ekoizpenak arautzeko gaitasuna garatzeko helburuz».

«Hizkuntzaren irakaskuntzak *Euskal Hizkuntza eta Literatura* arloaren mugak gainditzen ditu, hizkuntza ia curriculum osoan irakatsitako ikaskuntza guztien euskarri delako, eta eskolako ikaskuntza-prozesuak, neurri handi batean, hizkuntza-gaitasunaren garapenaren mende daudelako».

Oinarrizko curriculum-diseinua

Euskal Aditzari Begira **Adizki jokatuabeak -III-**

AURKIBIDEA

Aditz-izena.....	3
Zer. Zerk. Zeri. Zeren. Zerekin.....	5
Zertan. Zertaz. Zertatik.....	8
Zertara. Zertaraino. Zertarako. Zergatik.....	12
Aditz-izenaren beste erabilera batzuk.....	15

IZENA:.....MAILA:.....

Forma jokatu gabean agertzen diren adizkiek ez dute ez aldi-, ez pertsona-markarik hartzen; beste modu batera esanda, ez dute ez denborarik, ez pertsonarik adierazten.

Adizki jokatu gabeak hiru multzo nagusitan sailka daitezke:

Aditzoia: *etor, sar, har, eros, ikus...*

Partizipioa: *etorri, sartu, hartu, erosi, ikusi, bilatu...*

Aditz-izena: *etortze, sartze, hartze, eroste, ikuste, bilatze...*

ADITZ IZENA

Aditz-izena eratzeko nahikoa da aditzoinari *-t(z)e* eranstea edo aspektu-marka burutugabeari *-n* kentzea.

Idatzi alboan dagokion aditz-izena.

Aditzoia	Aditz-izena	Aspektu burutugabea	Aditz-izena	Aditzoia	Aditz-izena
Lan	Lantze	Apurtzen		Igo	
Etor		Jotzen		Bota	
Jan		Eramaten		Ikas	

*Hasi aditzarekin doan menpeko aditzak -t(z)en egitura hartzen du.
Pentsatu aditzarekin doan menpeko aditzak, berriz, -t(z)ea hartzen du.*

Bete hutsuneak ezkerreko aditzaren forma egokiarekin.

<i>(irakurri)</i> Hasi naiz liburua	<i>(aletu)</i> Atzo hasi ziren artoa
<i>(ikasi)</i> Medikuntza pentsatu dut.	<i>(ireki)</i> Leihoa pentsatu dut.
<i>(prestatu)</i> Laster hasiko gara arropa	<i>(esan)</i> Egia pentsatu dut.

Bete hutsuneak

Partizipioa	Aditz-izena	Aditzoia	Partizipioa	Aditz-izena	Aditzoia
eraman		eraman	hartu		har
joan		joan	ekarri		ekar
apurtu		apur	esnatu		esna
ikusi		ikus	ohartu		ohar
saiatu		saia	bidali		bidal
idatzi		idatz	kezkatu		kezka
itxi		itxi	kantatu		kanta

IZENA:.....MAILA:.....

Kristina eta Susana bilera-gelan daude.

KRISTINA —Niri mendira joatea gustatzen zait, hondartzara joatea baino gehiago.

SUSANA —Sentitzen dut, Kristina, baina Edurnek eta nik hondartzan bustitzea pentsatu dugu. Dena dela, Kristina, lasai egon, ez dago debekatuta eta, mendira bakarrik joatea.

KRISTINA —Bakarrik? Ez Mikelekin hitz egitea lortzen badut.

SUSANA —Kostako zaizu Mikelekin hitz egitea!

KRISTINA —Zergatik diozu hori, Susana?

SUSANA —Mikelek telefono guztiak itzali eta etxean sartuta gelditzea erabaki duelako. Nolatan bururatu zaizu, baina, mendira joatea egiten duen beroarekin?

KRISTINA —Bero egiten duela diozu eta hondartzara joatea gomendatzen duzu? °
Han, pagadi batean baino freskoago egongo zarela uste al duzu?

SUSANA —Horretan arrazoi duzu, Kristina, baina gauzatxo bat esatea ahaztu zait. Baina, ez dakit komeni den hori orain aipatzea.

KRISTINA —Zer demontretan zabilta? Sorginkeriatan orain ere? Espero dut ez izatea hain sorgina, eta oraintxe bertan esatea buruan dabilkizuna.

SUSANA —Ez dakit merezi duzun. Nahiago baduzu mendira joan, aurrera. Han ibiliko zara alai.

Goiko testuan bilatu eta azpimarratu aditz pareak: aditz nagusia eta haren menpeko aditz-izena. Gero, idatzi beheko koadroan.

aditz nagusia / aditz-izena	aditz nagusia / aditz-izena	aditz nagusia / aditz-izena
gustatzen / joatea		

*Adjektiboa + izan erako itzuliekin doan menpeko aditzak
NOR kasuko -t(z)ea hartzen du.*

(esan) Hobe da ezer ez	(edan) Komenigarria da ura
(egin) Polita da lan hori	(aspertu) Ez da ederra
(garbitu) Ona da komuna	(irabazi) gauza handia da.

HELBURUA

Aditz-izena zer den eta noiz eta nola erabili ikastea.
Aditz-izenaren deklinabide-kasuak nola erabili ikastea.

EDUKIAK

Kontzeptuak: Aditz-izenaren deklinabidea.
-t(z)en, -t(z)eaz, -t(z)etik

Prozedura: Adibideak, antzezpenak, grafikoak.

EBALUAZIOA

—Hizkuntz-erabilera: testu-egitura, kohesioa, perpausen egitura, hitzen eraketa.
—Klasean proposatutako ekintzekiko jarrera.

ZER EGIN

- a) Ikusi atala oso-osorik.
- b) 9., 10. eta 11. orrialdeak fotokopiatu eta banatu. Ikasleko bana.
- d) 9. orrialdea etxean egiteko eskatu.
- e) 10. orrialdea klasean landuko dugu. Ikasleei esan lantzen ari garen *Zertaz?* galderari erantzuten dioten formak bilatzeko eta azpimarratzeko testuan. Lehenengoa azpimarratuta dago. Eman hamar minutu.
Hori eginda, ikasleei esan binaka jartzeko, pertsonaia hautatzeko eta testua irakurtzeko. Eman bost minutu.
Hori eginda, bikote bateko Xabierri eta beste bikote bateko Kristinari eskatu testua era antzeztuan irakurtzeko.
- e) 11. orrialdea ere klasean lan dezakegu. Ikasleak lauko taldetan jarri eta beheko koadroko elkarrizketa idazteko eskatu. Eman hamar minutu.
Idaztekoa egin eta gero, ozenki irakurtzeko eskatu laukote bakoitzari.

IZENA:.....MAILA:.....

Aditz-izena deklinatzen: Zertaz -t(z)eaz
Zertaz? galderari erantzuteko, aditz-izenari ZEREZ / ZERTAZ deklinabide-kasuaren mugatu singularra erantsi ohi zaio.

Bulegoan

KRISTINA —Kaixo, Xabier. Ez dakizu ongi, zenbat pozten naizen zu ikusteaz.

XABIER —Hainbeste pozten al zara? Ez dakit, ba, zer pentsatu.

KRISTINA —Granate jaunak deitu dit, itxarroteaz aspertuta dagoela esateko.

XABIER —Granate jauna...

KRISTINA —Bai, txosten bi dauzkat garbira pasatzeko eta ez daukat astirik. Bilera bat daukat oraintxe bertan. Mesede hori egin behar didazu, Xabier. Bileratik bueltan afaria prestatzeaz arduratuko naiz.

XABIER —Afaría prestatzeaz arduratuko zara... Baina txosten honek orrialde asko dauzka.

KRISTINA —Ongi da, afaldu ondoren mahaia jasotzeaz ere arduratuko naiz.

XABIER —Afaría prestatzeaz eta mahaia jasotzeaz... baina bi txosten dira, eta nire gela...

KRISTINA —Ados. Zure gela txukuntzeaz ere arduratuko naiz. Kito! Banoa.

XABIER —Aizu, Kristina...

KRISTINA —Zer, Xabier? Afaría prestatzeaz gain, mahaia jasotzeaz gain eta gela txukuntzeaz gain, beste zerbait eskatu behar al didazu?

XABIER —Ez, neska, zera esan nahi nizun: bi txostenak garbira pasatzeaz aparte, nahi al duzu beste zerbait egitea?

KRISTINA —Ez, Xabier, ez. Hori egiteaz aparte ez zait beste ezer falta. Hori bai, ez dut akats txikiena ere ikusi nahi txostenetan.

XABIER —Ongi da, gauza bat egingo dut: txostenak garbira pasatzeaz batera, bide batez, zuzendu egingo ditut. Eta zuzenketak eginaz batera, Albertoren dendara deituko dut, afaltzeko gaiak presta ditzan esateko.

KRISTINA —Hori da nire Xabier. Ados, orain bai, banoa.

Zertara. Zertaraino. Zertarako. Zergatik

Iraupena: 9 min 20 s

HELBURUA

Aditz-izena zer den eta noiz eta nola erabili ikastea.
Aditz-izenaren deklinabide-kasuak nola erabili ikastea.

EDUKIAK

Kontzeptuak: Aditz-izenaren deklinabidea.
-t(z)era, -t(z)eraino, -t(z)eko, -t(z)eagatik

Prozedura: Adibideak, antzezpenak, grafikoak.

EBALUAZIOA

—Hizkuntz-erabilera: testu-egitura, kohesioa, perpausen egitura, hitzen eraketa.
—Klasean proposatutako ekintzekiko jarrera.

ZER EGIN

- a) Ikusi atala oso-osorik.
- b) 14. eta 15. orrialdeak fotokopiatu eta banatu. Ikasleko bana.
- d) 15. orrialdeko hutsuneak klasean bete. Hamar minutu eman eta zalantzak argitzeko beldurrik gabe galdetzeko eskatu ikasleei.
- e) 16. orrialdeko antzezpen-gidoia lantzeko ikasleei eskatu hiruko taldeak egiteko, bakoitzak pertsonaia bat hautatzeko eta hiruron artean irakuketa prestatzeko.
Irakurritakoan, hirukoteak, banan-banan eta klaseko ikasle guztien aurrean, testua aurrean daukatelarik, antzestu egingo dute.

IZENA:.....MAILA:.....

Aditz-izena deklinatzen:

Zertaraino -t(z)eraino

Zertaraino? galderari erantzuteko aditz-izenak NORAINO deklinabide-kasuaren mugatu singularra erabiltzen du. Intentsitatea adierazten du. Ez da nahastu behar *arte* postposizioarekin, *arte*-k denbora adierazten du.

Gaixorik **jarteraino** jan zuen. (*Asko jan zuen, baina ez zen gaixorik jarri*)
Gaixorik **jarri arte** jan zuen. (*Ez zion jateari utzi gaixotu arte*)

Asmatu aditz-izen enfatikoak.

Normala, gatz gutxikoa: Asko maite zaitut.

Enfatikoa(1):

Enfatikoa(2):

Enfatikoa(3):

Aditz-izena deklinatzen:

Zertarako -t(z)eko

-Zertarako? galderari erantzuteko aditz-izenek aditz-lokuzioak hartu ohi dituzte lagun. Gainera, -t(z)eko izen baten osagarri denean, unitate zatiezina osatzen du berarekin, eta unitate hori mantendu egiten da baita ezezko perpausetan ere.

Asmatu esaldiak ondoko egiturak erabiliz.

Joateko premia:

Egiteko prest:

Jateko gogoa:

Galtzeko arrizkua:

Aditz-izena deklinatzen:

Zergatik -t(z)eagatik

Zergatik? galderari erantzuteko aditz-izenak -*gatik* atzizkia erabiltzen du.

Berridatzi esaldiak aditz-izena + -gatik egitura erabiliz, adibidean bezala.

Arreta jarri gabe ibili zen eta, azkenean, erori egin zen.

Arreta jarri gabe ibiltzeagatik, azkenean, erori egin zen.

Ez zuen ikasi. Ez zuen gainditu.

.....
Ardura gabe jardun zuen eta guztia hankaz gora atera zitzaion.

.....
Ahal zuena baino gehiago egiten saiatu zen eta gaizotu egin zen.

.....
Buster Keaton imitatu nahi zuen eta sekulako kolpea hartu zuen.

Aditz-izenaren beste erabilera batzuk

-t(z)eke

Bete hutsuneak parentesi barruko aditza erabiliz.

Goizeko zortziak dira. Larunbata. Iratzargailuak egunero bezala jo du Gorriren logelan. Izan ere, aste osoa lanpeturik eman du, eta ez du astirik hartu iratzargailua «off»ean jartzeko. Jaiki da eta, bat batean, ohartu da etxeko eginbehar guztiak egiteke dauzkala.

Oheko izarak (*aldatu*); arropa zikinez beteriko ikuzgailua (*ipini*); sukaldeko mahai apurrez betea (*garbitu*); telebistaren «stand-bay»a (*itzali*); logelako zoruan sakabanaturiko jantzi erabiliak (*jaso*); aspiragailua (*pasatu*); datorren asterako jana eta edana (*erosi*); zabor-poltsa betea atari aurreko zaborrontzira (*jaitsi*); altzariei hautsa (*kendu*); astean irekitako liburuak (*itxi*) eta (*gorde*); asteaztenean hondatu zitzaion irrati-aparailua(*konpondu*) edo konpontzera(*eraman*).

Panorama horren aurrean, zer uste duzue egin duela Gorrik?

1. Balkoira atera, birikak aire berriaz bete-bete egin eta lanean hasi.
2. Balkoira atera, birikak aire berriaz bete-bete egin eta atzera ohean sartu.

Aditz-izenaren beste erabilera batzuk

-t(z)ear, -t(z)eko zorian, -t(z)ekotan

Bete hutsuneak parentesi barruko aditza erabiliz.

Gorrik atzera ohean sartzea pentsatu du. Baina...

.....(*lo hartu*) dagoenean egongelako telefonoak jotzen du. Altxatu eta oina espartinean (*sartu*) dela, behatz txikia trabatu, oinetakoa mugitu eta huts egiten du. Urduri eta ortozik, beraz, abiatu da telefonoa hartzera eta egongelako atea (*ireki*) dagoela, etxeko txirrina entzuten du. Ez daki zer egin. Zer egin (*erabaki*) dago egongelako telefonoa isildu dela ohartu denean. Lasaiago, ateko maratila (*ukitu*) dago, sakelako telefonoak jotzen duenean. Izoztuta geratu da. Azkenean, atea irekitzen du eta, hura ustekabea! Orlegi berbera, dotore-dotore, irribarre kilometrikoa ezpainetan. Gorrik adurra, ahotik behera (*irristatu*) dauka, bat batean, bere itxuraz ohartzen denean: ortozik, logale begiak, pijama zimurtua, sortu berri zaion lelo irribarre keinua... Aurrera! (*esan*) dago, etxeko kuxidadeaz gogoratzen denean.

Panorama horren aurrean, zer uste duzue egin duela Jonek?

1. Atea di-da batean itxi eta egoeraren analisia egin.
2. Atea di-da batean itxi, balkoian birikak aire berriaz bete eta atzera ohean sartu.
3. Bere besoari atximurka egin ametsez aldatzeko.

Liburuak

ZUBIRI, Hilari ; ZUBIRI, Entzi: *Euskal Gramatica Osoa*, Didaktiker, Bilbo, 2000.

ZUBIZARRETA, Aitor; DORRONSORO, Mikel; ZUBIMENDI, Josemari: *Gramática Gaitasuna Lantzen*, Euskara Zerbitzua, Glotodidaktika-lanak. Gasteiz, 2000.

EUSKALTZAINDIA: *Euskaltzaindiaren arauak*, Euskaltzaindia, Bilbo, 1994-2000.

Orri elektronikoa

www.hiru.com

Euskal Aditzari Begira

Aditz multzoaren egitura

Adizki jokatuqabeak -I-

Adizki jokatuqabeak -II-

Adizki jokatuqabeak -III-

Adizki jokatuqabeak -IV-

Adizki jokatuak -I-

Adizki jokatuak -II-

Adizki jokatuak -III-

Aqintera, baldintza eta aditz arazleak

Aditz-lokuzioak

Zenbait aditz bihurri

Ekoizlea:



Getaria, 18-behea

01010-Gasteiz

Tel-faxa: 945200608

artez@ikusentzunezkoa.euskalnet.net

www.artez-bai.com

LG.- VI- 464 / 08

Ikasmaterial honek
Hezkuntza, Unibertsitate
eta Ikerketa Sailaren
egokitasun-aitormena du.

2008 / 11 / 27